

arautegia

• 1. artikulua: AIZKARDIKO IBILALDIA

AIZKARDI Mendizale Elkarteak antolatutako zeharkaldi hau mendian egindako ibilbide herrikoa da, eta kirol- eta kultur-arloko helburuak ditu: mendizaletasuna bultzatzea eta Villabona inguruko leku eta ibilbideak erakustea, betiere natura erabat errespetatuz.

Parte-hartzea zabaltzeko asmoz, bi ibilbide prestatuko dira; bata 9. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria izango dena, eta bestea motzagoa, ibilbide erdiko. Ibilbide luzean parte hartzeko 14 urte beteak izatea derrigorrezkoa da.

• 2. artikulua: ERANTZUKIZUNAK

Parte-hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendibilbide bat dela, eta kirol-jarduera horren arriskuak dituela. AIZKARDI Mendi Elkarteak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilbidearen ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen edo izandako min eta lesioen ardura. Parte-hartzaileek uko egiten diote elkartearen kontra erreklamazioak jartzeari edo indemnizazioak eskatzeari. Mendi-jarduera hau edo gainerakoak egiteko federatuta egotea gomendatzen da.

Elkarteak jarduera hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

• 3. artikulua: IBILBIDEA

Aizkardiko 42. ibilaldia 2010eko martxoaren 28an egingo da, iteera eta helmuga Villabonaren izango direlarik. Ibilbide luzeak 42 Km inguru ditu, Villabona (61m) - Otita (Leizaran) - Lapurtxulo - Onddo (780m) - Azketa (832m) - Leuneta (880m) - Abadekurutz (984m) - Mandoegi (1.045m) - Kondizatzeko lepoa - Leizaran - Gorosmendi - Mugaga - Urdelar (858m) - Belabieta - Meaka - Otsabi - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 2.250 metroko desnibel gehitua du, BEDERATZI ORDU inguruan burutzen dena.

Luzera erdiko ibilbideak berriz, 24 Km inguruko luzera du, Villabona (61m) - Otita (Leizaran) - Lapurtxulo - Astabizkar (575m) - Amasola (Leizaran) - Praxku - Kanal Handia - Lastur - Villabona (61m) - Villabona-tik igarotzen delarik, eta 1150 metro inguruko desnibel gehitua du, BOST ordu inguruan burutzen dena.

• 4. artikulua: INFORMAZIOA / IZEN-EMATEA

Informazioa (Martxoaren 1etik aurrera) :

- Telefonoa (lanegunetan 20etatik 22etara): 649717182

- email : ibilaldia@aizkardi.com

Izen-ematea :

Izen-ematea DOAKOIA da, Martxoaren 1etik aurrera egin ahal izango da eta ondoren azaltzen diren bideak erabiliz egin dateke:

- Interneteko helbidea: <http://www.aizkardi.com/42Marxa.htm>

- AIZKARDI Mendi Elkartearen lokalean, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara

- Ibilaldiaren egunean bertan.

Izena emateko behar diren datuak:

- federazioko lizentzia zenbakia, EHNA edo DNI,

- izena eta bi abizen,

- autatutako ibilbidea, federatuta zauden ala ez, eta klubaren izena ere bai.

Datu hauen jabeari bere datu pertsonalak Euskal Mendizale Federazioan dagokion fitxategian txertatuko direla jakinarazi zaio, eta Euskal Mendizale Federazioak parte hartzen duen kirol proben berri emateko ekintzetan erabili ahal izango dira, 42.Aizkardiko Ibilaldiko parte-hartzaileen zerrenda ere bertako web orrialdean azalduko delarik. Baimen hori baliogabetu nahi izanez gero, nahikoa da honako helbide honetara jotzea, igorpena eta harrera egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliz: Euskal Mendizale Federazioa . Anoeta Pasalekua, 24. 20014-Donostia-San Sebastián, edo Aizkardi Mendizale Elkarte. Apdo.75. 20150-Villabona.

• 5. artikulua: ZERBITZUAK

Elkarteak lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezperan bertan lo egin nahi duten guzientzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek, antolatuntzari jakinarazi beharko diote telefonoz edo e-mail-az. Zeharkaldia bukatzean, parte-hartzaileek udal-dutxak erabili ahal izango dituzte, Villabonako Olaederra Kiroledegian.

• 6. artikulua: IRTEERA

Zeharkaldi luzea goizeko ZAZPIETAN hasiko da, eta motza ZORTZIETAN. Irteeran txartel pertsonalizatua emango zaio parte-hartzaile bakoitzari, izen-ematearen hurrenkeraren arabera zenbakiarekin. Era mailakatuan emango da irteera, gutxi gorabehera 50 parte-hartzaile minutuko.

• 7. artikulua: KONTROLAK

Parte-hartzaileek goian azalduko ibilbidea egin behar dute, eta derrigor igaro behar dute ezarritako kontrolatik. Kontrol horietan marxa-txartela erakutsi beharko dute, zigilua jartzeko. Kontrolak txartelean adierazitako gutxieneko eta gehieneko denbortartean egongo dira zabalik.

• 8. artikulua: BALIZAK

Ibilbideak plastikozko zinten bidez markatuta egongo dira. Antolaketa kideek azken parte-hartzailearen atzetik egingo dute ibilbidea, zintak jasoz eta ibilbideari amaiera emanez.

• 9. artikulua: HORNIDURA

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezko diren elikagai eta edariak ekartzea gomendatzen zaie. Antolaketa kideek ura eta gutxieneko homidura jarriko dute Lapurtxulo, Etxelako lepoa, Leizaran eta Mugaga kontrolatan. Ibilbidean dauden iturri naturalak: Aitzola (14. km) eta Urepel (21. km).

• 10. artikulua: ERRETIRATZEA

Ibilbidean zehar erretiratzen diren parte-hartzaileek antolaketa kideei eman behar diete txartela, edo bestela 649.71.71.82 telefono-zenbakian jakinarazi. Erretiratzeko punturik egokiena Leizaran da.

• 11. artikulua: BUKAERA

Ibilbidea egiten duten parte-hartzaileei, marxa gehienez HAMAR ORDU TERDI (Ibilaldi Luzea) eta SEI (Ibilaldi Motza) orduren buruan egin duela ziurtatzen duen marxa-txartela erakutsiz gero, diploma banatuko zaie helmugan.

Arratsaldeko BOSTAK ETA ERDIETAN, beti bezala, mendiko materiala zozketatuko da proba amaitu duten eta bertan aurkitzen diren parte-hartzaileen artean

42. Aizkardiko ibilaldia

2010 Martxoak 28

IBILALDI LUZEA

Luzera 42 Km

Desnibela 2250 m

Iraupena 9 ordu

Irteera Ordua ... 7:00 etan

IBILALDI MOTZA

Luzera 24 Km

Desnibela 1150 m


Iraupena 5 ordu

Irteera Ordua ... 8:00 etan

ADI ORDU ALDAKETA !!!




9.Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria



www.aizkardi.com

Km	LEKUA	ALT	DESNI. +	DESNI. -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	7:00	7:00	7:10
3,2	LASTUR Atsedenekua	175	175	55	7:27	7:36	7:53
3,7	Mandabietako bidegurutzea	210	220	61	7:32	7:42	8:00
4,9	TXERTOTA –San Esteban auzoa–	185	240	107	7:42	7:55	8:15
5,8	OTIETA Parkea	65	245	228	7:49	8:05	8:26
8,3	MUNTTO bidegurutzea	470	618	238	8:24	8:47	9:18
9,6	K-2 : LAPURTXULO	562	707	240	8:36	9:02	9:35
9,8	USOBELARTZAko zelaia	605	751	240	8:38	9:06	9:40
10,8	ONDDOko gaina	780	930	246	8:50	9:21	9:59
11,3	OTSOLEPOko lepoa	670	931	318	8:55	9:27	10:06
13,1	PELOTASOROko gaina	702	1025	378	9:12	9:49	10:33
14,0	AITZOLEko ITURRIA	727	1076	400	9:20	9:59	10:46
15,3	ETZELAko kaskoa	813	1175	416	9:32	10:15	11:05
15,9	K-3 : ETZELAko LEPOA	780	1194	466	9:38	10:22	11:13
16,8	LEUNETAko gaina	882	1284	471	9:46	10:33	11:26
19,0	ABADEKURUTZeko gaina	984	1440	518	10:06	11:00	11:59
19,9	TXISPARIko lepoa	945	1463	581	10:14	11:09	12:10
20,5	MANDOEGIKo gaina	1045	1562	586	10:20	11:18	12:20
21,2	UREPELEko lepoa –ITURRIA–	965	1570	661	10:27	11:27	12:32
22,5	KONDIZATZEko lepoa	895	1629	790	10:39	11:42	12:50
26,3	K-4 : LEITZARANgo IBAIA	360	1643	1278	11:15	12:26	13:45
30,2	GOROSMENDIko lepoa	665	1950	1346	12:18	13:48	14:55
32,3	K-5 : MUGAGAKo LEPOA	685	2013	1393	12:36	14:11	15:22
33,2	URDELAREko gaina	858	2109	1404	12:48	14:25	15:45
34,1	BELABIETA TXIKIko lepoa	758	2134	1482	12:57	14:36	15:57
35,7	IBIAIngo langa	615	2143	1623	13:09	14:52	16:16
36,2	BELABIETA	675	2206	1625	13:14	14:59	16:24
37,1	MEAKAko gurutzea	535	2208	1752	13:23	15:10	16:37
38,2	ARIZMENDIko gaina	492	2235	1818	13:31	15:21	16:50
40,1	KOMIZAREko Atsedenekua	200	2245	2108	13:48	15:42	17:14
41,7	OTSABI Auzoa	67	2250	2243	14:00	15:58	17:33
42,0	K-6 : VILLABONA	60	2250	2250	14:03	16:01	17:37



Km	LEKUA	ALT	DESNI. +	DESNI. -	min	ORDUA	max
0,0	K-1 : VILLABONA	60	0	0	8:00	8:00	8:10
3,2	LASTUR Atsedenekua	175	175	55	8:26	8:34	8:51
3,7	MANDABIETAtako bidegurutzea	210	220	61	8:30	8:39	8:58
4,9	TXERTOTA –San Esteban auzoa–	185	240	107	8:40	8:52	9:14
5,8	OTIETA Parkea	65	245	228	8:48	9:03	9:26
8,3	MUNTTO bidegurutzea	470	618	238	9:20	9:42	10:19
9,6	K-2 : LAPURTXULO	562	707	240	9:32	9:57	10:38
10,2	ASTABIZKAREko gaina	575	729	274	9:42	10:08	10:47
13,4	Leitzaran ibaia	145	770	670	10:10	10:49	11:30
13,9	Amasola	145	770	670	10:15	10:55	11:38
15,2	K-3 : KANAL HANDIA Praxkuren borda	300	912	691	10:40	11:15	12:02
16,9	Makinetxe	300	974	747	10:54	11:34	12:25
19,3	Depositua	300	1048	817	11:14	12:01	12:57
20,7	MANDABIETAKo bidegurutzea	210	1074	893	11:29	12:16	13:15
21,3	LASTUR Atsedenekua	175	1078	961	11:34	12:22	13:23
24,2	K-4 : VILLABONA	60	1140	1140	11:58	12:53	14:01